

BALEIKE

GUKA



FORONDA JAUREGIA

HERRIAREN ZAINDARI



Casa
BASUSTA



Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak

Santiago auzoa, 18 | 943-86 26 11 | www.floristeriabasusta.com |   



ENDAÑETak
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

ferretería Galdona S.A.



burdindegia



Industriarako era guztietako
material, tresna, pieza, eta osagarriak.



JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17



BALEIKE 334

2023-IRAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 5 | Korapiloa Intza Trula
<i>Momentuan momentukoa</i> | 28 | Erreportajea Intza Trula <i>Ilusioz eta gogo handiz eraikitako proiektuaren hasiera</i> |
| 6 | Hitz tantak Aritz Mutiozabal
<i>Peru Tolosa: "Gehiago betetzen gaitu probetan bizitako esperientziak"</i> | 31 | Agenda |
| 8 | Hainbat aburu Libe Yeregui Egaña
<i>errespetuan eta maitasunean</i> | 33 | Heziketa Mireia Centeno <i>Gurasoak seme alaben erlazioetan</i> |
| 9 | Errematea Eire Maia Manterola
<i>Gizonen industria</i> | 36 | Erretratua Maria Maya Manterola
<i>Bitxiak, modako osagarri</i> |
| 10 | Udako klik! Maria Maya Manterola
<i>Uda bete plan</i> | 40 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia <i>Euskaldun Izatearen Kontzientzia</i> |
| 18 | Guka gara! Josu Waliño <i>Hil da Baleike, gora Baleike!</i> | 44 | Izpiak eta hizkiak David De Llodio <i>Lekuko isila</i> |
| 20 | Erreportajea Foronda Intza Trula
<i>Herritarren zerbitzurako eta kulturaren garapenerako oinarri</i> | | |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Maria Maya Manterola
mmaya@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Intza Trula
Aritz Mutiozabal

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Saloa Perona Balda

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Babesleak:



DANOBATGROUP

DOMUSA
T E K N I K

PUBLIZITATEA

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-96 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

☎ 679 10 31 67
📍 Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f i

AIZPURUA
LIBRURIA
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behe • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☎ 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupea

Nagusia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, francés, euskara, ingeles, espanyol, catalán, suomi, basq, català, finès, français, anglès, catalan, frangese, castellano, finnish, ingles, basq, catalan

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Maki Gormendia

Basadi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivinet.com
www.basadidivinet.com

Goleze: 11-13 / Arribakoleze: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larriakdikarako: 605 72 87 07 Etkez etveko zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patzita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKOA
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16

LIZZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

Momentuan momentukoa



INTZA TRULA

Joan da beste bat. Ia konturatu ere egin gabe amaitu da. Begiak segundo batez itxi ditut eta ireki bezain laster berriz ere mahaian eserita ikusi dut nire burua, ordenagailuaren aurrean. Bulegoa azken aldiz zapaldu nuenean utzi nuen bezalaxe aurkitu dut. Iraila da. Aurtengo uda ere atzean utzi dugula konturatu bezain laster, hurrengoan pentsatzen hasi naiz. Urtebeteko saltoa egin dut ohartu gabe; zerbaitetarako presa izango banu bezala, eta, ziurrenik, hor dago akatsa.

Gogoan ditut duela urte batzuetako uda amaigabeak. Goizean goiz esnatzen ninduten gurasoek; bainujantzia hartu, erraz erantzteko arropa jantzi eta hondartzarako bideari ekiten genion. Bada, hilabete haietan nire kezka bakarra jolaserako behar-beharrezkoak nituen pala eta kuboak etxean ez ahaztea zen. Eta gogoan dut, haatik, eguneko gauzarik gogorrena hondartzara heltzeko egin beharreko bidea zela. Horretara mugatzen ziren nire buruhauste eta kezak; hortik at geratzen zen guztiak, batere axolarik ez.

Halaber, gauzak asko aldatu dira; ni ere aldatu naiz, badakit, baina uste dut arazoa ez dela hori. Udak guztiz bestelakoak dira orain; ez dakit hobeak ala okerragoak, baina ezberdinak. Egunak, asteak edota kasu honetan, hilabeteak, gero eta azkarrago pasatzen zaizkidala jabetu naiz, eta alboan ditudanekin hitz eginda, sentsazio bera dutela ohartu naiz. Ez dut uste kasualitate hutsa denik. Hori horrela, eta makina bat buelta eman ondoren, ondorio batera iritsi naiz: momentuan momentukoa bizitzeaz ahaztu gara.

Lasterketa baten barruan izango bagina bezala bizi gara azkenaldian, inguratzen gaituzten eguneroko gauzei jaramonik ere egin gabe. Oro har, modan dago gizarte honetan okupatuta egotea, eguneko minutu eta segundo guztiak zerbait egiten pasatzea. Korrika eta presaka ematen ditugu eguneko 24 orduak. Alabaina, geroz eta arraroagoa da denbora libre izatea, gustuko dugun horri denbora eskaintzea, ezer ez egitearekin disfrutatzea. Eskua jokatu nuke oporretan egon eta ehuneko ehunean deskonektatzen dutenen zerrenda motz-motza dela.

Ez dakit gakoa non dagoen esaten –ideia zipitzik ere ez dut–, baina ziur nago oraindik etorri ez denaren esperoan egoteak, edota bihar egitekoak ditugun horietan fokua jartzeak, ez duela inongo mesederik egiten.

Laburbilduz, bihar edo etzi gertatuko den edo ez den horri balio gutxiago ematean egon daiteke giltza. Orainak du garrantzia, eta bihar etorriko da etorri beharrekoa. Beste ezertan pentsatu gabe, haurrak ginenean gauzarik txikienarekin ere egiten genuen moduan. Momentuan momentukoa. ■■■

**MOMENTUAN
MOMENTUKOA
BIZITZEAZ
AHAZTU GARA**

Peru Tolosa: "Gehiago betetzen gaitu probetan bizitako esperientziak"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ARITZ MUTIOZABAL

Estropadak alde batera utzi eta triatloian erabat murgildu da Peru Tolosa (1997). Lehen urtea du kirol berrian, eta gogotsu ari da entrenatzen eta lehiatzen. Etxeko proba jokatzeko ilusioz dago.

Urte askoan arraunean aritu ondoren, aurten triatloian hasi zara. Nolatan erabaki duzu kirolez aldatzea?

Aspalditik nahi nuen triatloia probatu. Herrikoian pare bat alditan parte hartu ondoren, baneukan triatloi munduan barneratzeko gogo, eta distantzia ezberdinetako probetan parte hartzeko. Arraunean motibatuta aritzen nintzen beti, baina iaz ez zen hala izan, grina gutxitu egin zitzaidan. Motibazio falta neukanez, beste zerbaitean hastea erabaki nuen. Triatloirako ilusio hori baneukan, eta arraun lagaz gero, garbi neukan kirol horretan hasiko nintzela.

Triatloian hasi eta buru-belarri zabilta.

Entrenatzea gustuko dut, baita lehiatzea ere. Pixka bat arraunetik ikasitakoa praktikara eraman dut, eta, gero, triatloi taldeko kideak beti daude laguntzeko eta beraien esperientziak kontatzeko prest. Haiek erakutsitakoarekin eta nik lehendik nekarrenarekin, bada, ongi moldatzen ari naiz.

Arraunlari zineneko seriotasun berarekin?

Arraunean ohituta, gorputzak ere eskatu egiten dizkizu entrenamenduak. Kirol honetan kilometroak pilotzea da gakoa, ez dago besterik, eta orduan, banekien gustura ibiltzeko txukun entrenatu beharra dagoela. Edonola ere, niri ez zait batere kostatzen. Erabatekoa da lanerako dudan diziiplina eta prestutasuna.

Exijentea al zara zure buruarekin?

Baietz esango nuke, baina hori baino gehiago, gustuz egiten dudan zerbaite da. Egunero entrenatzea ez da obligazioa niretzat. Adibidez, udan, eguraldi ona egiten duela, bizikletan errepidera irtetea sekulako plana da, edo korrika egitera joatea. Ez dut betebeharrak bat bezala ikusten, gozamen moduan baizik.

Proba herrikoiak egitetik proba federatueta parte hartzera aldea egongo da, ezta?

Bai, batez ere mailari dagokionean. Aurreneko postuetan ibiltzen direnek urteak daramatzate

lehian eta egundoko maila dute, baina denetarik dago. Oso serio har dezakezu eta aurrealdean dabilzanekin lehiatzen saiatu zaitezke. Hala ere, nik uste dut gozatzeko ikuspegiarekin hartu behar dela parte. Gisa horretan, aukera ematen dizu triatloiak egiteko Lekeition [Bizkaia], Mutrikun [Gipuzkoa] eta inguruko herrietan. Zumaiaetik denetariko jendea joaten gara, batzuk aurrerago sailkatzen dira eta beste batzuk atzerago, eta lasterketa amaieran guztiok elkarrekin komentatzen dugu proba. Ez gara honetatik bizi, eta gehiago betetzen gaitu bizitako esperientziak. **Orain arte taldeko kirola landu duzu, orain bakarka aritzen zara. Antzematen al da taldekideen bultzadaren falta?**

Bai, nabaritzen da. Hala ere, arrauna taldeko kirola izan arren, neguan ordu asko ematen dituzu bakarrik entrenatzen –ergometroan, adibidez–, eta niri bakarka aritzeko une horiek gustatzen zitzaizkidan. Egia da batzuetan taldearen babesa edo taldearekin entrenatzea faltan botatzen duzula, baina, tira, lagunekin bizikletan irteten saiatzen naiz, eta igerilekuan ere norbaitekin juntatzen. Beti topatzen dut norbait inguruan, nahiz eta ez den gauza bera.

Lau bat triatloi jokatu dituzu. Zer-nolako sentipenak izan dituzu?

Denboraldiari ikasten ekin nion, eta ikaste horretan hanka sartzeak egiten direnez, lesionatu egin nintzen. Ondorioz, hilabetez korrika egin ezinik geratu nintzen. Lesiotik osatuta, inolako espektatibarik gabe hasi nintzen, nire benetako maila eman gabe, baina pixkanaka hobeto sentitzen joan naiz, gero eta sentsazio hobeak edukitzen. Gainera, erosoago ikusi dut nire burua distantzia olinpikoan, esprint proba bizien aldean, denbora eta egoera kudeatzeko aukera gehiago ematen didalako.

Zein da zure hurrengo helburua?

Irailaren 16an Zumaiaiko Triatloia egiteko asmoa dut, baina nire lehen urtea izanda, helburua gozatzeko eta ondo pasatzeko izango da. Jende ugari egoten da animatzen eta ilusio berezia egiten ditutxean parte hartzeak. ■■■





Enpatian, errespetuan eta maitasunean

Uda amaierarekin batera eskolara itzultzeko unea heldu da. Haur batzuentzat momentu zirraragarria baldin bada ere, beste askorentzat garai zaila eta gogorra izaten da; ez da erraza gurasoeekin denbora asko pasatu ondoren, goizetik gauera eskolan ordu luzez horiek ikusi gabe egotea. Haur Hezkuntzako irakaslea naizen heinean, gertutik jarraitu izan ditut ikasturte hasierak.

Alde batetik, gurasoen eskua askatu bezain laster, jolasten, marrazten, saltoka eta algaraka dabiltzan haur mota hori daukagu. Eskolara itzultzeko gogoa hain da handia, oporretan eskolara itzultzeko zenbat egun gelditzen diren galdetzen baitie gurasoei eta tutoreei. Esan beharra daukat irakasleontzat ederra dela haur

batzuek duten motibazioa, poza eta segurtasuna gertutik sentitzea.

Bestetik, ordea, garai hori beldurrez eta tristuraz bizi duten haurrak daude, eta horien errealitatea guztiz ezberdina dela iruditzen zait. Gurasoengandik banandu eta eskolara sartzea amets gaizto bihurtzen da txiki askorentzat, eta etxekoen babesera itzultzea da halakoetan haien desio

ESAN BEHARRA DAGO BANAKETA GARAIA SEME-ALABENTZAT BEZAIN ZAILA DELA FAMILIENTZAT ERE

bakarra. Kasu horietan, ikasle batzuren, hezitzaileen nahiz gelakideen laguntza behar izaten dute lasaitzeko; beste batzuek, aldiz, babes hori izanik ere denbora gehiago behar izaten dute ikasgelan eroso eta lasai sentitzeko.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago banaketa garaia seme-alabentzat bezain zaila dela familientzat ere, eta ohikoa dela hasiera berri honetan ezjakintasuna eta beldurra sentitzea. Hori horrela, familiak haurrak bezainbeste zaintzea funtsezkoa da guraso, irakasle eta haurren artean konfiantza eta lasaitasun giroa sortu nahi bada.

Horrenbestez, guztiok dugun helburu bateratu honetan, zintzotasuna, gardentasuna,

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



EIRE MAIA MANTEROLA

Gizonen industria

Zaila da gizonen mundu batean leku bat egitea. Sentitzen den txikitasuna, beste hainbat esparrutan bezala, musika industrian nabarmena da.

Euskal Herriko eszenan eta handik kanpo ere, orokorrean askotan errepikatzen diren formatuetan, talde askok idatzitako letrak edo erakutsitako jarrerak haien adineko neska gazteek oholtza batean egingo balituzkete, ez lukete erantzun bera izango. Gizontasunetik, denak balio duela pentsatuz, edonork erreferentzia bezala hartuz. Azkenean, beraientzat ondo badoa, zergatik hartu ardurarik?

Dena da zilegi, eta ezer ez da ezbaian jartzen. Nork egingo du, bada? Nor ausartuko da ezer esaten? Guk dena afinatu behar dugu, dantza egin, maila handiko *show* baten ardatza izan, eta irribarretsu agertu. Baina hori er, askotan, zoritxarrez, ez da nahikoa. Beti gehiago eskatzen da, gehiago egin behar da eta gehiago erakutsi behar dugu.

Etengabe nahikoa ez sentitze hori ez da zilegi. Ardurak ez hartzea ez da zilegi. Beste batzuei ere gehiago eskatzen ikasi behar dugu. Denak ez du balio. ■

komunikazioa eta elkarlana funtsezkoak izango dira, bereziki lehen aste hauetan.

Bizitako esperientzia oinarri hartuta, onartu beharra daukat beti izan naizela amazulua eta txikitan noiz edo noiz banaketa uneak desatseginak egin zitzaizkidala. Horregatik, momentu hauetan gaizki pasatzen duten hurrei eta, bide batez, haurtzaroko Libe txikiari hitz batzuk eskaini nahiko nizkieke: normala da une honetan sentitzen ari zaren guztia sentitzea.

Ziurrenik tristura, pena edota beldurra izango dituzu, baina esan nahi dizut bide honetan ez zaudela bakarrik, hemen seguru zaudela, gurasoak laster itzuliko direla eta sentitzen duzun guztia plazaratzeko libre zarela.

Horretarako izango dituzu irakasleak alboan, beti entzuteko eta laguntzeko prest.

Amaitzeko, honakoa adierazi nahiko nuke: argi izan behar dugu haur bakoitza bakarra eta ezberdina dela, eta eskolara itzulerak askotariko emozioak sorrarazi ditzakeela haiengan.

Horren aurrean, haur bakoitzaren denbora, emozioak eta beharrak errespetatzea eta helduon babesa eskaintzea behar-beharrezkoa da. Horrekin batera, gainontzeko haur nahiz helduekin erlazionatzen hasten diren etapa honetan, enpatian, errespetuan nahiz maitasunean hezte funtsezkoa da haur batzuentzat hain gogorra den garai hau ahalik eta ondoen igarotzeko. ■





Uda bete plan

Uda Zumaiaetik kanpo pasatu dute zenbait herritarrek. Izan ere, uda bidaiatzeko sasoia izaten da, leku berriak ezagutzekoa eta eguneroko eginbeharretatik aldentzekoa. Baina herrian geratu direnek ere, uda bete plan izan dute gozatzeko. Hona hemen abuztuak Zumaian utzitako hainbat irudi.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Intza Trula eta Imanol Manterola**.



Dotore jantzeko eguna

Abuztuaren lehen larunbatean ospatu ohi den Gala Egunak jantzi dotoreei hautsa kendu eta lagunartean egoteko beta ematen die zumaiarrei.

Aurtengoan ere haur, gazte zein heldu kalera atera dira, eta horietako asko gerturatu dira Zumaiako Udalak eta Baleikek elkarlanean Saregile plazaren parean ezarritako argazki txokora. Bertatik igarotakoek lagunarteko oroigarria dute orain.

Dantza eta irriak, airean

Euskal folklorea ardatz duen Euskal Jaia egun maitea dute zumaiarrek, eta aurtengoak ere arrakasta izan du. Baserritarren jantzi koloretsuak, abarketak, zapiak eta txapelak goizean goizetik ikus zitezkeen Zumaiako kaleetan.

Bertako jakiz osatutako mokadutxo bat jan eta sagardoz laguntzen dute batzuek; lagunartean hamaiketako egiteko joera dute beste batzuk, eta bada jai giroa trikiti eta pandero doinuen erritmora dantzan igarotzen duenik ere.

Irudian, gazteak eguzkipean dantzan, Amaia plazako erromerian.



Artisauen lana

Euskal Jaiko ekitaldi goiztiarrenetakoa izaten da Alde Zaharreko kaleetan ezartzen duten azoka, eta eguerdira artean, askotariko postuak izaten dira: jakienak, eskuz egindako otarreenak, abarketenak edota jantzienak. Produktu horiek guztiak zuzenean artisauengandik eskuratzeko aukera izaten dute azokara bertaratzen direnek.

Ezkerreko irudian, baserritarren jantziak egiten dituen artisaua bere postuan eserita, eskuz ehundutako mantal eta zapi artean irribarretsu.



Alde Zaharra atrezzo

Harategiko kalea, Zunbilo, Kale Nagusia, Foruen Enparantza, Arritokieta, San Pedro kalea nahiz Sanjuaniturri.

Euskal Jai eguneko goizeko artisau azokan beren bizitza berreskuratzen dute Alde Zaharreko kale, bidegurutze eta txokoek.

Izan ere, garai batean bezala, herritarren topagune bilakatzen dira euskal folklorearen festan duela hamarkada batzuk Zumaia kale garrantzitsuenak zirenak.

Eskuineko irudian, eskuz egindako otarreak mahai gainean salgai dituen emakume bat, Zumaia Kale Nagusiko atari batean ezarritako postuan, irribarretsu. Denboran atzera egiteko gonbita egiten dute irudian ageri diren postuek eta kale zaharrek.



Balkoitik balkoira

Eguerdi partean, Oihana Iguaranek eta Sustrai Colinak bi bertso saio eskaini zituzten balkoitik balkoira; bata, udaletxean, eta, bestea, Kofradian.

Herritarrek kaletik jarraitu zuten saioa bi leketan, eta Kofradian saioarekin batera, herrira zabaldu zen jai giroa.



Haur eta gazteen gozagarri

Ekitaldi andana izan zen Zumaian Kuadrilla Egunean. Gazte kuadrillek ez ezik, txikiagoek ere izan zuten zertaz gozatua. Izan ere, disko festa eta apar festa izan ziren, eta eguzkia lagun, haur eta gazte ugari elkartu zen bi ekitaldietan. Goiko irudian, Odietako apar festa.

Poteoa, bi gorpilen gainean

Alkandora koloretsuak soinean eta bi gorpilen gainean hasi zuten abuztuaren hirugarren larunbatean ospatzen den Kuadrilla Eguna gazte ugari.

Beheko plazan elkartu, eta jada tradizio bihurtu den ohiturari jarraiki, musika lagun zutela, makina bat taberna bisitatu zituzten goiz osoan zehar bizikletaren gainean.

Irudian, kuadrilla bat, beroari aurre egiteko abaniko, betaurreko eta biserak hartuta. Arratsaldean eman zioten jarraipena festari, Jainekin txarangaren doinuek lagunduta.





Buru-gorputzak dardarka

Zumaiako Dardara musikarien kolektiboak Kuadrilla Eguna baliatu zuen beste urte batez Dardara Fest jaialdia antolatzeko.

Berezia izan da aurtengo edizioa zenbaitentzat, Bikabi talde sortu berriak zabaldu baitzuen Amaia plazako eszenatokia bere lehen kontzertuarekin.

Ingurukoen nahiz musikazaleen babesean aurkeztu zuen talde zumaiarrak lehen lana, *Besteen ekaitza* deiturikoa. Entzuleek gitarra eta bateriaren erritmora astindu zituzten buru-gorputzak, eta abuztuaren 6an kaleratutako diskoari zenbait entzunaldi eman zizkiotela argi geratu zen kontzertuan, entzuleek taldearekin batera abestu baitzituen abestiak.



Musikarien topagune

Bost musika talde izan ziren Amaia plazako eszenatokian Dardara Festeko aurtengo edizioan. Musikazaleez bete zen plaza, eta musikarien kolektiboak aurtengo jaialdirako prestatutako eskaintza zabalaz gozatu zuten guztiek ere.

Irudian, Zarauzko Ginger musika taldearen kontzertua.



Eszenatoki gainean eta azpian

Goizeko ordu txikiak arte jarraitu zuen festak. Zumaiarrak eszenatokiaren azpian bakarrik ez, gainean ere izan ziren. Ezpalak taldearen kontzertuan, esaterako.

Zestoako eta Zumaiako musikariz osatutako taldeak giro ederreko kontzertua eskaini zien bertan pilatutakoei.

Baserritarren Eguna, sanbartolomeen bueltan

Abuztuaren amaiera aldera ohikoa denez, San Bartolome jaiak izan dira Oikia auzoan. Jai Batzordeak egitarau oparoa prestatu zuen egun guztietarako.

Baserritarren Egunean, goizak euritsu argitu bazuen ere, artisau azoka egin zuten, eta hurbildu ziren auzotarrak eta bisitariak inguruko ekoizle eta artisauen eskaintza ezagutzera. Ondorengo orduetan, berriz, sagardo dastaketa, elektrotxaranga, kontzertuak eta DJ saioak izan ziren bertaratutakoentzat.





Asto probak, festen atariko

Oikiako sanbartolomeen lehen ekitaldia izaten da urtero asto proba. Abuztuaren 24an, ostegunez hasi ziren aurtengoan festak, eta gogotsu atera ziren parte hartzaileak probara. Artabilla, Peio eta Etxabe izan ziren aurtengo parte hartzaileak, hain justu ere. Eskuinean, asto proba jokatu ondorengo irudia, Oikiako plazan.

Ondoren, festen lehen egunean, San Bartolome egunez, bingo musikatua egin zuten eta Astiasaran II.a eta Andonegi trikitilariak emanaldia eskaini zieten Oikiara bertaratutakoei.

Ostegunean hasi eta astelehenera bitarte, beste lau festa egunez gozatu ahal izan zuten oikiarrek nahiz inguruko herri eta auzoetatik joandakoek.



Eire bikotearen emanaldia

Eire bikote zumaiairak kontzertua eskaini zien Oikian bildutakoei, eta euripean izanagatik, giro ederra sortu zen eszenatokiaren behealdean.

Joan den urtearen amaieran kaleratu zuten lehen abestia, eta ordutik gertutik jarraitu dute taldea zaleek. Bikoteak abesti berri bat edo beste aurkezteko ere baliatu zuen Oikiako kontzertua.



Dinastia Etxabek batu ditu

Beste urte batez, Dinastia Etxabe pilota txapelketa jokatu dute abuztuan zehar Aitzuri pilotalekuan. Aurtengoan, honakoak izan dira txapelketaren irabazleak: Agirre-Cabanillas zesta-puntan, eta Egurrola-Sotil eta De la Fuente-Apeztegia eskuz.

Marrazoak eta dortokak, hareaz

Helduentzako ez ezik, hurrei zuzenduriko askotariko jarduerak ere izan dira uda honetan zehar.

Esaterako, Andoni Bastarrika azpeitiarraren eskutik, etxeko txikienek harea erabilia eskulturak egiten ikasteko bi tailer izan dituzte igaro berri den abuztuan. Hilaren hasieran izan zen lehen saioa; bukaeran, bigarrena.


Askotariko formak egiten ikasi zuten hurrek hondarra eta ura erabilia: marrazoak, krokodiloak, dortokak zein izurdeak. ■■■■



Hil da Baleike, gora Baleike!



JOSU WALIÑO



Baleike sortu genuenean lagun batek esan zidan errazena egin genuela. Bere ustez, zailena ez zen aldizkariaren proiektua diseinatzea, finantzazioa aurkitzea, lehen zenbaki hura argitaratzea... Zailena ondoren zetorren: aldizkariak irautea lortu behar genuen, hilero-hilero zenbaki bat argitaratu etenik gabe, proiektua denboran bizirik mantenduz.

Datorren urtean 30 urte beteko dira Baleike sortu genuela, eta urte hauetan guztietan proiektuak aurrera egitea lortu dugun arren, beti izan ditut gogoan bere hitzak, orduan harritu baninduen ere, lagunak arrazoi osoa zuelako. Denbora honetan urrats asko egin ditugu Baleikeren etorkizuna bermatzeko: Zumaiako Gazte Batzordearen babesa utzi eta Baleike Kultur Elkarteak sortzea izan zen lehena, lantaldearen profesionalizazioan lehen urratsak etorri ziren ondoren, Internet eta digitalizazioaren aldeko apustua, etengabeko berrikuntza, eragileekin lankidetzeta eta kalitate irizpideetan sakontzea, eta, azken urteotan, lankidetzan

oinarritutako hedabide proiektu sendo baten garapenaren aitzindaritzeta izan da azkena.

Esan daiteke, Baleiken ez diogula inoiz utzi proiektuaren bideragarritasuna bermatzearen alde lan egiteari, eta, hain justu, helburu horrekin sortu berri dugu GUKA estrategia. Gaur egungo hedabideen errealitate aldakorrean ezinbestekoa da apustu sakonak egitea gure proiektuaren etorkizuna bermatzeko. Horregatik, lehen urrats moduan UKT kooperatiba sortu genuen, eskualdeko gainerako hedabide eta elkarteekin elkarlanean gure proiektuei sendotasun profesionala emango zien kooperatiba eratuz. Orain, bigarren urratsa dator: eskualdeko hedabideak indartuko dituen marka berriaren aterpean etorkizunera

GUKA IZANGO DA BALEIKE. JAUZI BERRI HONEK BERMATUKO DU BETIKO BALEIKE BETIRAKO IZATEA

begira jartzea: GUKA.

Baina GUKA marka huts bat baino askoz gehiago da: Zumaiian Baleike indartu, bere bideragarritasuna bermatu eta ordezkaturiko duen proiektua delako, baina, horrez gain, eskualdean ditugun tokiko euskarazko hedabideak elkarlanean jarri eta kalitatezko kazetaritza oinarri hartuta etorkizunera begira jarriko dituen tresna delako.

Baleike GUKA da, eta GUKA izango da Baleike. Jauzi berri honek bermatuko du betiko Baleike betirako izatea, marka berri baten txapela jantzita, baina berezko duen izaera mantenduz: berritzailea, tokikoa, zumaiarra, kalitatezkoa, askea, plurala. Eta ezaugarri horiei beste batzuk gehituko dizkiogu orain: lankidetzeta, eskualdea, bideragarritasuna, etorkizuna, sendotasuna...

Aldaketak GUKA izena du, baina izena aldatu arren, izanak berdin jarraituko du, zailtasun guztien gainetik, etorkizunera begira. ■

NON DAGO BALEIKE




Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali irailaren 22a baino lehen.

Saria: TIPITAKIn bi lagunentzat gosari eder bat.

Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Uztaileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 34. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Alaitz Aizpurua Uranga** bazkidea izan da irabazlea.



Zumaiako denedetan duzu ikasturte berrirako behar duzun guztia!!

Herritarren zerbitzurako eta kulturaren garapenerako oinarri

Foronda jauregiak bizitza handia du, baina zumaia askok ez dute hango egunerokoaren berri. Ez dakite udalak antolatzen dituen kultur arloko ikastaro asko eta asko han gauzatzen dituztela, ezta herriko talde eta eragile ugariak egoitza eta biltegia han dituztela ere. Herritar askorentzat toki ezezaguna da Foronda.

Testua: **Intza Trula**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio,**
Maria Maya Manterola eta
Intza Trula.

Foronda jauregiak Forondako markesari zor dio izena, haren udako etxea izateko eraiki baitzuten XX. mendearen hasieran. 1980an, Zumaiaiko Udalaren eskuetara igaro zen eraikina, eta harrezkero, kultur arloko hainbat ekimenen habia izan da. Han egin dituzten ikastaro eta emanaldien zerrenda zumaia askok uste dutena baino luzeagoa da; eta azken urteotan horietako askoren kokaleku Alondegia bihurtu den arren, Forondan oraindik gauzatzen dituzten kultur esparruko jarduerak asko eta era askotakoak dira. Horietan parte hartzen duten herritarrez aparte, ordea, jende gutxi du hango egunerokoaren berri; oro har, Foronda jauregiak ezer gutxi dakite zumaia gehienek.

Juan Jose Gurrutxagak eraiki zuen jauregia, XX. mendearen bigarren hamarkadan, eta *Zumaia 650* liburuak jasotzen duenez, "Zumaiaiko etxe aristokratikoen adibiderik nabarmenena da". Nobleziaren irudia mantendu nahian, gaztelu itxura emanez eraiki zuten etxea. Hainbat urteren ondoren, 1970. urtearen bueltan, Maria eta Jose ikastetxean zeuden mojen eskuetara pasatu zen eraikina, eta denbora batez internentzako bizilekutzat erabili zuten, eskolarekin batera.

Miriam Romatet gaur egungo Zumaiaiko Udaleko Kultura Saileko teknikariak azaldu duen moduan, "Musika Jaialdian ere izan du bere garrantzia jauregiak", eta harekin duen harremana aspaldikoa da: "Herria musikaz betetzen zuten horiek, Foronda hartzen zuten abuztuko aste horietan; bertan biltzen ziren musikari, antolatzaile





Foronda jauregia.

eta irakasle guztiak". Han egiten zituzten jatorduak, han egiten zuten lo eta han egiten zituzten emanaldietarako entseguak ere, Romateten esanetan. Kontzertu txikiak ere eman ohi zituzten jauregian bertan.

Herriko kultur mugimenduaren habia

Eraikinaren potentziala eta eskaintzen zituen aukerak ikusita, 1980. urtean Zumaiako Udalak hartu zuen jauregiaren ardura, eta eraikina biziberritzeko lanak jarri zituen martxan. Egokitzapenak eginda, Kultur Etxe bihurtu zen jauregia, eta eraikinari etekina ateratzeko asmo horretan, publikoari eta herritarrei zuzendutako lehenengo zerbitzuak jarri zituzten martxan. Hori horrela, 1990. urtean liburutegia zabaldu zuten; bai haurrena, eta baita helduena ere. Halaber, urtean zeharreko ikastaroetan egindako lanen erakusketak jartzen ere hasi ziren.

Romateten esanetan, urteak aurrera joan ahala, liburutegia txiki geratzen hasi zen, eta leku gehiagoren beharra ikusi zuen udalak. Horrenbestez, antzina mojen logelak izan zirenak eraberritu zituzten, eta, horri esker, liburutegia handitzeko aukera izan zuten. Liburutegiaz gain, hitzaldi aretoa eta zuri-beltzeko argazki tailerra, egur taila tailerra, antzerki tailerra eta beste hainbat ikastaro berri antolatzen hasi ziren.

Oraindik ere ikastaro sorta mardula gauzatzen dute Forondan, nahiz eta herritar askok ez dute horren berri. "Herritar askok ez dakiten arren, bizitza handia du Foronda jauregiak. Kultura Sailak



antolatutako ia ikastaro guztiak han egiten dira; hala nola, zeramika tailerra, pintura tailerra, haurrentzat plastika tailerra, yoga, egur taila eta abar, eta KZ Gunea ere han dago", zehaztu du Romatetek.

Haurrentzat eta gaztetxoentzat jarduerak ere bai

Esate baterako, joan den ikasturtean Forondan gauzatu zuten helduentzat yoga ikastaroa, asteen bi saio eginda; han egin zuten egur taila ikastaroa ere; Ander Hormazurik han ematen ditu pintura tailerrak; eta lehenengo urtez, sormen eta arteterapia tailerretan parte hartzeko aukera ere izan zuten herritarrek. Horiez gain, kontrol mental, Thai Chi, Qi Gongo eta meditazio saioak ere egin zituzten iragan ikasturtean.

Helduentzat ikastaroak ez ezik, haurrentzat eta gaztetxoentzat ikastaroak ere hartu ditu Forondak joan den ikasturtean; eta besteren artean, oinarrizko pintura tailerra, ttutti frutti haurren plastika tailerra eta buruhandiak sortzeko tailerra han egin dituzte.

Horretaz guztiaz gain, Zumaiako elkarte gehienek ere jauregian dute egoitza, eta baita biltegia ere. Bertso eskolak, Distira Zumaiako argazki elkarteak eta Baleikek, esaterako, jarduera iraunkorrak egiten dituzte Forondan. Halaber, helbide edo biltegi bezala erabiltzen dute etxea Ostarrena zine klub elkarteak, Zumaiako Joaldun Taldeak, Astindu Zumaiako dantza taldeak eta beste hainbat taldek eta elkartek. Ezkontza zibilak egiteko gunetzat ere erabiltzen dute, eta herritar askok egiten dute han ezkontzeko hautua.

**FORONDAKO
MARKESAREN UDAKO
ETXE IZATEKO ERAIKI
ZUTEN JAUREGIA, XX.
MENDEAREN HASIERAN**

**1980AZ GEROZTIK,
UDALAK ANTOLATU
IZAN DITUEN KULTUR
ARLOKO IKASTAROEN
KOKALEKU IZAN DA**

"Pintura eskoletara lehen baino jende gazteagoa etortzen da orain"

ANDER HORMAZURI ARTISTA



Ander Hormazuri (Zumaia, 1966) artistak 30 bat urte daramatza Forondan pintura tailerrak ematen. Helduentzako zein haurrentzako ikastaroak eskaintzen ditu, eta urteak aurrera joan ahala, ikastaro horietako parte hartzaile kopurua etenik gabe handituz joan da. Ikasturtearen amaieran artelanak Oxford aretoan jartzen dituzte ikusgai, urte

osoan egindako lana herritarrekin partekatzeko. **30 urte daramatzazu Forondan pintura tailerrak eskaintzen.** Bai, erraz esaten da, baina 30 urte badira batzuk. Gaur egun helduentzat zein haurrentzat tailerrak eskaintzen ditut. Urtero etortzen dira ikasle berriak, eta lehendik dabiltzanak eta berriak, denetariako elkartzten gara. Normalean,

hamar bat laguneko taldeekin lan egiten dut. **Ikasle zaharrak eta berriak nahasian izaten dituzu, hortaz; baina batzuekin eta besteekin ez duzu lanketa bera egingo. Ikasle berriak nondik hasten dira?** Lehen aldiz etortzen diren ikasleak arkatzarekin eta borragomarekin bakarrik hasten dira. Arkatzarekin zuri-beltzean marrazten pasatzen dituzte aurreneko

hiru bat hilabeteak, eta ondoren, pinturak motak eta margotzeko teknikak ezagutzen hasten dira. Formak eta itzalak marrazten hasten dira, horiek nola funtzionatzaren duten ikasten dute, eta horiek paperera pasatzeftxurin dituzte jarraian. Lehendik dabiltzan ikasleek oinarrizko ezagutza horiek dagoeneko badituztenez, ikasturtearen hasieratik pintatzeari ekiten diote. Margotzeko hainbat teknika irakasten dizkiet eskoletara datozenei; besteak beste, olio pinturak erabiliz, akrilikoekin eta akuarelekin. **Irudimena lantzeko eta norbere gustuko lanak egiteko leku paregabeara izango dira zure eskolak...**

Nik ez diet esaten zer margotu behar duten, hori norberaren eskuetan uzten dut. Hasiera batean, marrazten hasten garenean, bai, objektu jakin batzuk jartzen dizkiet eta horiek marrazteko agindu, helburua izaten delako forma ezberdinak, horien itzalak, perspektibak diferenteak lantzea. Oinarrizko ezagutzak dira horiek, zerbait marraztu behar duen edozeinek jakin beharreko gutxieneak, gero egoki jardun daitezten. Pintura lantzen hasten garenean, ordea, margotu nahi duten zerbait aukeratzeko eskatzen diet.

Batzuek beren buruaren argazkiak ekartzen dituzte; beste batzuek, berriz, gustuko duten artistaren baten lanen bat pintatzen dute. Hala ere, saiatzen naiz aurrez eginak dauden lanen kopia hutsak ez ditzaten egin, eta animatzen ditut euren zerbait ekartzera eta hori marraztera.

Denetariko lanak sortuko dituzte zure eskoletan, ezta?

Gutako bakoitza desberdinak gara, eta bakoitzak gauza oso desberdinak ditugu eskaintzeko. Ni saiatzen naiz ahalik eta ondoen irakasten, egin nahi dutena ahalik eta txukunen atera dadin. Hasierako lanketa taldean egiten dugun arren, ondorengoa norberak bere erara egiten du, eta ni ikasle bakoitzaren beharretara egokitzen naiz; bakoitzari behar duena irakasten diot.

"GUTAKO BAKOITZA DESBERDINA DA, ETA BAITA BAKOITZAK ESKAINTZEKO DAUKAGUNA ERE"

"IKASTURTE OSOA ELKARREKIN PASATUTA, LAGUNARTE OSO ONA SORTZEN DA"

Dena oso pertsonala da, eta bakoitzaren estiloa eta gustua lantzen eta ondoren hori pinturan proiektatzen saiatzen gara. Lan oso ezberdinak ateratzen dira, bakoitzaren gustuen eta izaeraren arabera. **Zein da zure eskoletara doazen herritarren batez besteko adina?**

Eskolak ematen hasi nintzenetik hona batez besteko adina nabarmen jaitsi da. Lehen, gehienak helduak etortzen ziren; orain, berriz, denetariko ikasleak ditut. Garai batean, 50 bat urteren bueltako jendea etortzen zen batez ere; baina askoz jende gazteagoa etortzen da orain, eta ederra da hori taldearentzat ere. Gainera, lehen, jendea taldean edo lagun batekin etortzen zen, baina azken urteotan ikusten ari naiz jendea bakarrik etortzera gehiago animatzen ari dela. **Pintatzen ikasteaz gain, lagun talde ederra sortuko da orduan...**

Ikasturte osoa pasatzen dugu elkarrekin, eta azkenean oso lagunarte ona egiten dugu. Hasieran ezezagun talde bat gara, ikasturtea amaitzerako lagun taldea izaten gara; afariak eta guzti egiten ditugu. Pintatzen ikasteaz aparte, jendea ezagutzeko aukera polita da.

"Forondan bizitza handia dago, jendeak horren berri ez duen arren"

INAXIO TOLOSA FORONDAKO LEHENENGO KULTURA TEKNIKARIA

Inaxio Tolosa (Zumaia, 1963) Foronda jauregiko lehenengo kultura teknikaria izan zen. Han eskaini ziren aurreneko ikastaroak antolatzeko ardura izan zuen, eta harrezkero, jauregia bizitzaz betetzen nola joan den ikusi ahal izan du.

Nola gogoratzen dituzu hasiera haiek?

1985. urtean hasi nintzen Forondan kultur teknikari. Garai hartan, festak antolatzetik aparte, erakunde publikoek ez zuten kultura sustatzeko ezer askorik egiten. Foru aldundiak herrietan kultur teknikariak ezartzeari ekin zion orduan, eta horrela hasi nintzen, pixkanaka-pixkanaka ikastaro batzuk antolatzen, bai Zumaian eta bai Getarian.

Forondako lehenengo ikastaroak antolatzeko ardura zeuk izan zenuen...

Bai, eta gogo handiz jardun nuen lan horretan. Ikastaro asko antolatu nituen; besteak beste, otarregintza ikastaroa, komikigintzakoa, zeramikakoa eta txalaparta jotzen ikastekoa. Gogoan dut Jexux Artze izan zela txalapartako irakaslea, eta jendea Bilbotik ere etortzen zela saio haietara. Neuk ere hainbat ikastaro eman nituen; besteak beste, antzerki ikastaroa, malabareak egiten ikastekoa eta zankoetan ibiltzekoa.

Eulalia Alberdi eta Fermin Leiza arduratzen ziren Forondako jauregia barrutik eta kanpotik txukun mantentzeaz. Gogoan dituzu?

Noski gogoan ditudala, eta oroitzapen ikaragarri onak ditut gainera. Sekulako lana egiten zuten biek, oso langileak ziren, konfiantzazkoak. Ikusgarria zen zelaia nola zaintzen zuten, eta, oro har, etxe osoa nola mantentzen zuten. Forondako jauregia barrutik eta kanpotik ikusteko aukera izan dutenek irudikatu dezakete zenbaterainoko lana eman dezakeen horrelako eraikin bat behar bezala zaintzeak, baina inork ez Eulali Alberdik eta Fermin Leizak bezain ongi. Forondako sarrera eta gela guztiak beti txukun-txukun egotearen ardura haiena zen, eta baita eraikina inguratzen duen belardia dotore egotearena ere.

Forondak bizitza dauka, zumaia askok horren berri ez duten arren...

Hala da, bai; Forondan bizitza handia dago, jendeak horren berri ez duen arren. Zumaiaiko kultur mugimendua Forondan hasi zen, eta urteotan guztiotan ikastaro pila bat antolatu izan dira han, herriarrentzat eta herriarentzat oso aberasgarriak. Gainera, elkarte mordoak dauka

egoitza han, eta hori ere zumaia askok ez dakite.

Zer falta da Forondako jauregian?

Beti pentsatu izan dut, eta oraindik ere berdina pentsatzen jarraitzen dut, telebista edo irrati batentzat leku aproposa dela Foronda. Herri mailako irrati edo telebista bat sortzea posible ikusten dut, ez eguneroko saioak eskainiko lituzkeena, baina bai noizbehinkako saioak egiteko. Gaur egun baliabide asko daude, eta jende asko dago horretan oso ona dena. Irrati bat egotea asko gustatuko litzaidake; hitzak garrantzia izatea ondo legoke. Goiko solairura igotzen naizen bakoitzean etortzen zait burura irrati bat martxan jartzeko leku erabat aproposa dela.

Forondak urteotan izan duen eboluzioaren inguruan zer balorazio egiten duzu?

Eboluzio ikaragarria izan duela uste dut, eta urtetik urtera gauzak hobetzen joan direla. Garrantzia handia duen espazioa da, eta bertan egiten den lanak kultura arloan berebiziko garrantzia du Zumaian. Beti esaten dut kultura beti izan dela anaia ahaztua, ez baztertua, baina nire ustez ez da behar bezala elikatzen eta horrelako gauzekin ikusten da Zumaian badagoela kultura bultzatzeko gogoia. ■■■



Ilusioz eta gogo handiz eraikitako proiektuaren hasiera

'Besteen ekaitza' diskoa estreinatu zuen Bikabi Zumaiaiko taldeak abuztuaren lehenengo astean. Halaber, Zumaiaiko Kuadrilla Egunean eskaini zuten lehen kontzertua, lagunen eta etxekoen berotasunean, Dardara Fest jaialdian.

Testua: **Intza Trula**. Argazkiak: **Iñaki Agirrezabalaga**.

Manu Aizpuruak (Zumaia, 1998), Unai Linazasorok (Zumaia, 1997), Alberto Hidalgok (Zumaia, 1996) eta Iñigo Gonzalezek (Zumaia, 1996) osatzen dute Bikabi laukotea; rock doinuak ditu oinarri talde hasiberri horrek, nahiz eta argitaratu berri duten bildumak estilo ezberdinak nahasten dituzten abestiak izan.

Gonzalez eta Linazasoro izan ziren taldea sortzeko lehen pausoak eman zituzten kideak: "Unai eta nik beste talde bat sortzeko saiakera egin genuen lehenago, baina proiektua ez zen aurrera atera. Zerbait serioa egiteko gogoarekin geratu ginen, eta segituan hasi ginen berriz ere gaiari bueltak ematen", azaldu du Gonzalezek. Ez zuten denbora askorik behar izan Aizpuruarekin eta Hidalgorekin hitz egin eta euren asmoa plazaratzeko, ezta haien oniritzia jasotzeko ere: "Ez genuen bi aldiz pentsatu, eta segituan elkartu ginen lehen entsegua egiteko", aipatu du

Aizpuruak. Gainera, hasieratik lortu zuen taldeak elkar ulertzea.

Duela urtebete baino zertxobait lehenago hasi zen guztia. Esan beharra dago –eta taldekideek horrela argitu dute– ezagunak zirela lau gazteak aspalditik; zumaiarrak dira laurak, eta beste musika talde batzuetan parte hartutakoak ere bai. Horrez gain, Zumaiaiko San Telmo jaietan hain ezaguna den Bertsio Gauean parte hartu izan dute, nahiz eta nork bere aldetik izan.

Musika talde bat sortu ez duenak ere ongi daki horrelako proiektu baten atzean zenbaterainoko lana egon daitekeen, eta protagonistek argitu dute "gogoia, ilusioa eta fundamentua" izan direla proiektua aurrera eramateko giltza. Halaber, hilabete hauetan, nork bere aldetik jardun du lanean, diskoaren sorkuntzan: "Lauron artean elkarlanerako balantza polita sortu dugu", dio Gonzalezek.

Horrez gainera, laukotearen esanetan, "gustu eta interes ezberdinetako" lau pertsona elkartu dira bidaia honetan, eta guztia ondo joateko



"albokoari entzutea eta proiektuan sinestea" behar-beharrezkotzat jo ditu Aizpuruak.

Bada, errealitatean, gogoaz eta ilusioaz gain, zertxobait gehiago ere behar izan da Bikabi aurrera ateratzeko: talde lana, hain zuzen ere. Horretan ere ondo moldatu dira gazteak; abestiak sortzearen kontua Aizpuruak hobeto kontrolatzen duela eta diseinu kontuez normalean Gonzalez arduratzen dela aipatu du Hildagok, eta taldeak funtzionatzeko gakoa horretan dagoela iritzi du: "Norberak ahal duen horretan lagundu du, eta lauron arteko lanarekin proiektua aurrera ateratzea zen helburua. Etxean ere lan asko egiten dugu, ez entseuetan bakarrik".

2022ko irailean hasi zen laukotea elkartzen, eta ordutik etenik gabe jardun dute abestiak sortzen; alde batetik eta bestetik hartu dute inspirazioa, azaldu nahi zuten hura abestietan ahalik eta ondoen plazaratzeko.

Halaber, Linazasorok azaldu du taldeak gauza bat argi izan duela elkartzen hasi ziren unetik: kontzertuak ematen hasi aurretik, abesti propioak

sortu eta grabatzea nahi genuen, eta jarduna ez mugatzea bertsioak egitera soilik. Helburua betetzeko, "hilabeteak kantak sortu eta sortu" eman zituztela aipatu du Linazasorok, "ahalik eta azkarren grabaketari ekiteko".

Garrantzitsua da, era berean, sortutako abestiak ekoizteko estudioaren aukeraketa, eta Bikabi taldeak argi izan zuen hasieratik Jurgi Taboadaren Ozen estudioan egingo zuela hori. Taboada dago Zumaiako musika munduko lan gehienetan atzean, eta ezkutuko protagonista horren agenda beteak Bikabiren sorkuntza denboran ere izan du eragina: "Sei kantak amaitzen ari ginela, Taboadarekin kontaktuan jarri ginen grabaketarako hitzordua hartzeko, eta bere agenda ikusi genuenean, konturatu ginen uda hasi aurretik grabatzen ez bagenuen, urrira arte itxaron beharko genuela", adierazi du Gonzalezek. Protagonistek argi zuten udan lehen diskoa grabatuta eta argitaratzeko prest izan nahi zutela, eta, beraz, "pilak jartzea" besterik ez zitzaientz geratu zumaiarrei. Diskoa grabatzeko zeukaten

denbora murrizta eta horrek eskatzen zuen lana kontuan izanda, Taboadak egindako lana eta esfortzua eskertu eta azpimarratu nahi izan dituzte taldekideek.

Hori horrela izanik, eta behin Taboadarekin hitzartu ondoren, uztaileko azken asteak Ozen estudioan sartuta eman zituzten, *Besteen ekaitza* diskoaren grabaketa lanetan. "Oso erraza izan zen guztia. Taboada makina hutsa da, eta oso



"ZAILA DA ESTILOAREN KONTUA DEFINITZEA; ABESTI EZBERDINAK EGITEN DITUGU, ETA BAKOITZAK BERE EZAUGARRIAK DITU"

"ALBOKOARI ENTZUTEA ETA PROIEKTUAN SINESTEA BEHAR-BEHARREZKO DA HAU AURRERA ATERATZEKO"

profesionala bere lanean", azpimarratu du Aizpuruak.

Denbora luzearen ondoren, saria

Lan orok dakar bere saria, eta urtebeteko lanaren ondoren iritsi zitzaien Bikabiko protagonistei eurena. Abuztuaren hasieran iritsi zitzaien disko osoa jendaurrean aurkezteko unea, eta beso zabalik hartu zuten lagunek eta ingurukoek berria: "Lehen singlea kaleratu bezain laster, jende mordoak partekatu zuen abestia sareetan, eta hori ere oso pozgarria da guretzat", Hidalgo azaldu duenez. Halaber, beren musika estiloa kontsumitu ohi ez duen jendeak ere positiboki baloratu du abestia, eta Aizpuruaren ustez, "horrek ere badu bere meritua".

Hala eta guztiz, estilo ezberdinak barnebiltzen dituen diskoa sortu dutela aipatu du Linazasorok: "Zaila da estiloaren kontua definitzea. Rock doinuetan oinarrituta daude kanta, baina bakoitzak bere ezaugarriak ditu; batzuk ilunagoak eta gogoragoak dira, beste batzuk, berriz, lasaigoak eta argiagoak". Publiko zabalak gozatzeko moduko abestiak sortu ditu laukoteak.

Itzaltzen singlea izan zen taldeak aurkezpen modura kaleratu zuen lehen abestia, eta gaur egungo sistemari eta gizarteari egiten dio erreferentzia, Aizpuruak azaldu duenez: "Gaur egungo sistema honetan oso eroso bizi den pertsona bati hitz egiten dio abestiak, 'ez urrundu' 'zintzo egon', diote hitzek. Gero datorren zatiak, berriz, sistema horretatik alde egiteko deia egiten du nolabait. Errebeldia puntua dauka bigarren zati horrek".

Behin diskoa kaleratuta, orain kontzertuak eskaintzean jarri nahi du fokua Bikabi taldeak. Jendartean ezagutzeko, publikoak disfrutatzeko eta momentu on bat pasatzeko unea iritsi dela iritziz dute: "Orain, denbora batez, ez dugu abesti gehiago sortuko. Daukagunarekin kontzertuak ematen hasi nahi dugu, eta horren ondoren jarraituko dugu gauza berriak sortzen. Ahalik eta kontzertu gehien eman nahi ditugu berriz ere proiektu berri bati heldu aurretik", dio Linazasorok. Laukoteak ez du oraindik hitzordurik itxita; hala eta guztiz ere, badituzte buruan hainbat jaialdi eta festa.

Dardara Fest jaialdian eskaini zuen lehen kontzertua Bikabi taldeak, uda giroan, etxekoan eta lagunen artean. "Amestutako estreinaldia" izan zen, kontzertuz betetako ibilbide luze baten aurrean lehenengoa. ■

AGENDA



Casa Susanna filmeko fotograma bat.

ZINEMA

IRAILAK 8, 9, 10 ETA 11

Barbie.

Aita Marin, 19:30ean.

10, IGANDEA

Superheroiaren familia haur zinema.

Aita Marin, 17:00etan.

IRAILAK 15, 16, 17 ETA 18

Las dos caras de la justicia (+16).

Aita Marin, 19:30ean.

17, IGANDEA

Rally Road Racers haur zinema.

Aita Marin, 17:00etan.

IRAILAK 22, 23, 24 ETA 25

El sol del futuro.

Aita Marin, 19:30ean.

IRAILAK 29, 30 ETA URRIAK 1 ETA 2

Abentura erraldoia.

Aita Marin, 19:30ean.

ERAKUSKETAK

ABUZTUAK 30-IRAILAK 17

Xabier Irureta. Pintura.

Oxford aretoan.

DEIALDIAK

IRAILAK 29-30

Artadi auzoko jaiak.

IRAILA

15, OSTIRALA

Benito Lertxundiren kontzertua.

Aitzuri pilotalekuan, 21:30ean.

16, LARUNBATA

Triatloia.

16:45-19:00.

21, OSTEGUNA

Olarro zopa, Zumaiako ondarea jardueren aurkezpena eta mahai ingurua.

Oxford aretoan, 19:00etan.

21, OSTEGUNA

Zinegoak: *Casa Susanna* zinema proiektzioa.

Aita Mariko zinema aretoan, 19:30ean.

23, LARUNBATA

Olagarro Eguna.

XVII. Olagarro Eguneko Argazki Rallya.

24, IGANDEA

Kamikaz kolektiboaren *Troia* kale antzerkia.

Odietan, 12:00etan.

28, OSTEGUNA

2022ko Sormen Beketako lanaren aurkezpena: Esti Curielen *Kareletik. Alondegian, 19:00etan.*

30, LARUNBATA

Itzurun hondartzako surf txapelketa lokala.

Goizean zehar, Itzurun hondartzan.

PUBLIZITATEA

ekin
elektrikitate, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.eekinl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Garaa

Carlos Cintero / Ainhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainiki!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Irlondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokalirua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI
Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

JUARISTI
jaketxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

Gurasoak seme-alaben erlazioetan



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Gizakiaren ongizate psikologikoaren oinarrietako bat bizitza sozialak eskaintzen digu; horregatik, gurasook asko kezkatzen gaitu gure seme-alabek kalitatezko erlazioak izateak. Gure seme-alabek lagun onak izatea nahi dugu, eta zuzenean edo zeharka, modu ezberdinetan eragiten dugu horretan.

Beti azpimarratzen dudana bezala, guraso gisa eredu gara, eta gure seme-alabek gurekin sortzen duten harremana eta gure erlazionatzeko modua izango dituzte oinarri beren harremanak eraikitzeke orduan. Guk eskaintzen dieguna espero dute besteez, eta gugandik jasotzen dutena izango da epe luzera gehien eragingo diena. Baina zeintzuk dira gure seme-alaben egunerokotasunean erlazioen inguruan sortzen diren egoerak? Eta nola eragiten dugu?

Lagunik onenak. Beti dago joera pertsona batzuekin lotura sendoagoak sortzeko, eta hori oso naturala da, baina kontuz adiskidetasunaren erromantizazioarekin. Lagun on asko izan ditzakegu, eta gure seme-alabengan txikitatutako eksklusibitatea sustatzea ez da

batere onuragarria izango. Alde batetik, guraso bezala segurtasuna ematen digu horrek, badakigulako beti izango dutela norbait aldamenean, baina haurrak pertsona ezberdinekin erlazionatzea komeni da, horrela nortasun ezberdinak eta erlazionatzeko modu ezberdinak konparatzeko aukera izango baitute.

Gertu egon. Gure haurrak beren lagunekin egoteko, adin batera arte, gu ere haiekin egotera behartzen gaitu. Gure seme-alaben gurasoeekin gutxieneko harremana edukitzeak asko lagunduko dio seme-alabari ere erlazio horiek mantentzen.

Bestearen etxera joatea. Batzuetan lagungarria izan daiteke lagunak etxera ekartzea edo gure seme-alaba bere lagunak etxera joatea, baina kontuz, horrek ere batzuetan lagun taldea asko murriz dezake eta. Alde batetik, beste

haurrek lagun taldekanpo uzteko arriskua dago, eta bestetik, erlazioak mugatzen ditu.

Ospakizun askariak. 10 urte inguru dituztenean, haurrak beren lagun talde egonkorra sortzen hasten dira; ordura arte izandako erlazioak kontuan hartuta, epe luzera beren lagun izango direnak aukeratzen hasiko da. Baina adin hori ailegatu arte, pertsona ezberdinak ezagutzeko joera izango dute. Beraz, adin batera arte, teoriarik, gomendagarria izan daiteke lagun talde handia gonbidatzea askarietara. Gero, 10 urtetatik aurrera, modu naturalean taldekatzen hasten dira, eta orduan, ospakizunak ere talde txikiagoetan egiten hasten dira.


Gatazkak. Gatazkak ezingo ditugu saihestu, eta batez ere gure seme-alaben lehen urteetan, modu inpultsiboan jokatzen dutelako maiz. Gatazkak enpatia lantzeko aukera egokia izango dira, bestearen lekuan jartzeko eta pertsonen jarrerak ulertzeko; beraz, gatazka baten ondoren aprobetxatu gertatutakoaz hausnartzeko eta bakoitzak jokatu duen bezala jokatzeko arrazoiak hitz egiteko.

**BETI DAGO JOERA
PERTSONA BATZUEKIN
LOTURA SENDOAGOAK
SORTZEKO, ETA HORI
OSO NATURALA DA**



Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia. Esaera zahar bat agertuko zaizu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Handienetik txikienera




Ezetz asma!



Aspiko praktatan harrapatu dugun txerri dotore hau arra da. Txerri arrak izendatzeko hitz zehatzak ditu euskarak, ba al zenekien? Honoko zazpi hauen artetik hiruk, esaterako, horixe bera esan nahi dute. Ea asmatzen duzun zeintzuk diren.

ORDOTSA ARLOTEA KUIA AKETZA
KOSKABILOA APOTEA MIZPIRA


Hiru txerri txoak





Zure eguneroko hizkeran, zer dira bi lagunok, txerriak edo urdeak? Sudoku honetan, URDEAK dira, eta hitz horren parte diren sei letrak beharko ditugu zuriuneak osatzeko (U, R, D, E A eta K). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

SUDOKUA



NON demontre...

Lagundu txerrikume honi gogoan duen adiskidea aurkitzen. Eroen gisan atera dira denak kortatik, eta orain bi lagunek ez dute elkar aurkitzen.

Zein da txerri malabaristaren itzal zuzena? Bide batez, margotu ezazu



Itzalak

Ispiluan baleude bezala ikusten dituzun bi irudiok berdinak ematen dute baina ez da hala. Aldea dago batetik bestera. Guztira 19 ezberdintasun aurkitu behar dituzu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Bitxiak, modako osagarri

Libe Etxaniz, piercing egilea

Gizarte langilea zen Etxaniz duela bi urtera arte. Piercingak egiteko ikastaroa egin zuen orduan, eta lagunei zulaketak egiteari ekin zion; Greyline estudioan egiten ditu orain. Zulaketen arriskuez eta zaindu beharreko alderdiez aritu da *Baleike*-rekin.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Maripitxias deitzen zion amak txikia zenean. Libe Etxanizi "betidanik" gustatu izan zaizkio belarritakoak, lepokoak nahiz era guztietako bitxiak, baina ez zekien lan eremutik nola heldu "mundu horretara".

Lagunarteko bazkari batean suertatu zitzaion aukera. Julen Muñoz Greyline estudioko tatuatzailearekin hizketan ari zela, profesional sanitario izateko titulua ateratzea gomendatu zion hark, eta esan zion, piercing egile izateko, gero berak jarriko zuela kontaktuan ondo irakatsiko zion pertsona batekin. "Pentsatu nuen, ez banuen orduan egiten, ez nuela inoiz egingo, eta bi aldiz pentsatu gabe hasi nintzen ikastaroak begiratzeko", dio Etxanizek.

Adin txikikoen zentro batean ordezkapenak egiten aritzen zen orduan Etxaniz, gizarte langile: "Hilabete batean lan asko eduki nezakeen arren, gerta zitekeen hurrengoan lanik ez egitea. Ez nuen ordutegi finkorik, eta aurreko astean jakiten nuen ordutegia. Gustatzen zitzaidan lana, baina asko mugatzen ninduen egunerokotasunean", azaldu du. Greyline estudioko harreraren lan egiten zuen Aitziber Egibarrek baja hartu behar zuen orduan,

eta ohartu zen hura ordezkatu eta piercingak egin, bi lanak, egin zitzakeela estudioan.

Profesional sanitario izateko titulua *online* eskuratu zuen, ikasketak etxetik eginez, eta Bartzelonara bidaiatu zuen gero: "Han estudio batean egon nintzen astebetez ikasten, ni bakarrik. Astelehenetik ostiralera egunean bederatzi orduko klaseak jaso nituen, eta larunbatean zulaketak dohainik eskaini genituen, nik praktikatzeko".

Zumaiara heldu zenean, ordea, bere kabuz hasi behar izan zuen zulaketak egiten, ez zegoelako "prest" estudio batean lanean hasteko. "Lagunei egin nizkien lehen zukaletak; zulatuta ditut denak", dio. Etxanizen ustez, "esperientzia pilatzen" ari da azken hilabeteotan, eta zulaketaren bat egiteko gai ez bada, ezezkoa ematen du, arazorik gabe.

Gogoan ditu lehen zulaketak. Erasmus programan ezagututako lagun bati egin zizkion belarri gingilean eta tragusean, irakaslearen eskuak bereen gainean zituela. Izan ere, Etxanizen ustez arrakala handia dago teoriaren eta praktikaren artean, eta desberdina da pertsona bakoitzaren anatomia, gainera. "Sudur denak eta belarri denak desberdinak dira. Gorputz atal normatibo batekin irakasten dizute piercingak egiten, baina gero, atal hori desberdina duen



irrimarra



pertsona bat etor daiteke, eta ez da arraroa. Ikasi egin behar da egokitzen, eta pertsona guztiei ez die balio neurri bereko piercing batek", azaldu du.





Neurri eta mota askotako belarritakoz apaintzen dira gorputz atalak, baina oraindik ere belarrietako zulaketak dira ohikoenak, Etxanizen hitzetan. "Traguseko zulaketak egin ditut gehien. Eta septumean ere bai, sudurraren erdian. Oso zabaldua dago septumeko piercinga, baina egiteko zailena da: sudur barruan egiten da zulaketa, eta ez da ikusten orratza nondik sartzen ari zaren". Etxanizen arabera, erraza da zulaketa hori okerra egitea, eta berehala nabaritzen da, gainera, alboz eta aurrez aurre ikusten delako belarritakoa. "Mina egiten duela diote, baina ez da hala, ez dagoelako kartilagorik zulaketa egiten den lekuan. Ehun fin bat da *septril*-a", dio.

Adin guztietako bezeroak izaten ditu estudioan, baina ez da guztiei edozein lekutan zulaketak egitearen aldekoa. Hitz egiteko eta erabakiak hartzeko gai izatea da zulatzeko muga: "Haur bat ez da gai ohartzeko zer daukan, ezin duela ukitu, lotan kontuz ibili behar duela... Ez da higienikoa, eta gainera, haur baten belarri gingilak oso bigunak egon ohi dira. Denoi egiten dizkigute belarrietan zuloak txikitan, baina horrek ez du esan nahi ondo dagoenik". Hala eta guztiz, belarrietan zuloak egitea piercing egilearen lana izan beharko litzatekeela uste du. Etxanizen

ustez, ospitaleetan edo farmazietan ez dira kezkatzen bi zuloak simetriko egiten, eta orratz batekin eta gertutik eginda, askoz zehatzago egin daitezke zuloak. "Umeak mugitu egiten dira, eta zer esanik ez jaioberriak. Hori ondo egiten ikasi duten pertsona bat badago, zergatik egin beste batek?", egin du galdera.

60 urtetik gorako jendeari ere egin dizkio zuloak Etxanizek. Gaur egun "apaintzeko modu bat" direla dio piercingak: "Aldatu egin da piercingaren kultura. Gaur egun, edonork ditu, jende ezagunak ere bai. Lehen, kaleko jendearen kontua zen: bekaineko piercinga, adibidez, hiri tribu batzuei oso lotuta zegoen. Lotura horiek lausotzen ari dira orain. Tatuajeekin berdin; lehen kriminalizatua zeuden".

Zulaketak egitea arriskitsua izan daitekeen galdetuta, argi du erantzuna Etxanizek. Norberak zertan ari den ez badaki, arriskutsua izan daiteke, ezbairik gabe: "Zulatzaren duzun zainaren arabera, paralisi txiki bat eragin dezake. Jakin egin behar duzu zertan ari zaren". Etxanizi eskatu izan diote, adibidez, mingainaren bi aldeak batzen dituen piercinga egiteko, baina haren ustez, "arduragabekeria" litzateke zulaketa hori egitea: "Mingaina bi gihar taldetan banatuta daukagu, eta paraleloak dira. Horiek batuz gero, asko galtzen da mugikortasuna, eta dastamena ere gal daiteke".



Etxanizek dio "ohikoa" dela estudio batzuetan arduragabekeriak jokatzea. Materialak balio handia dauka, haren ustez: "Material merkeena erabiltzen dute batzuetan. Ni zerbitzu bat ematen saiatzen naiz pertsona horri ahalik eta min gutxien egiteko. Orratz zorrotzak eta ezkoztatuak erabiltzen ditut, orratzaren eta piercingaren artean konexio ona egiten saiatzen naiz mina saihesteko, eta material biokonpatibleak erabiltzen ditut -garestiago izan arren, gutxiago gaiztotzen direlako zulaketak-. Etxanizek aipatu du materialek gero eta alergia gehiago eragiten dizkietela herritarrei, eta zauriak gaiztotzeko probabilitatea jaisteko material hobeak erabili beharra dagoela: "Horrek esan nahi du, bai nik, bai bezeroak, gehiago ordaindu behar dugula".

"Aurreiritzi hutsak"

Zulaketak egiten dituela argituta, beti galdetzen diote Etxanizi ea tatuajeak ere egiten dituen. "Hori izaten da lehenengo galdera. Alderantziz ez da gertatzen: tatuatzaileei ez diete piercingak egiten ote dituzten galdetzen. Piercinga tatuajearen barruan dagoen zerbait da jendearen ustez, baina ez daukate zerikusirik".

Etxanizek adierazi duenez, mesfidati galdetu izan diote ea zulaketak egiteko ikasi duen edota errematik esterilizatzen dituen. Harentzat ezinbestekoa da arreta zuzena eta jarraipena:

"Egunerokotasunari lotutako ofizioa da. Udan, esaterako, jende pila bat etortzen da, eta horiei arreta zuzena emateaz gain, jarraipena egin behar zaie. Batzuetan, deia jaso, etxetik atera eta hamar minutuan artatu behar izaten dut estudioan bezeroa". Horregatik ikusten du bere burua jardunaldi osoz piercing egile edo gizarte langile. "Oraingoz" gustura dago zulaketak egiten, eta ondo bidean, hala jarraituko du datozen hilabeteetan ere. ■■■

Libe Etxaniz

- **Adina:** 26 urte.
- **Ikasketak:** Gizarte Lana, Profesional Sanitaria eta ikastaroa piercingaren hastapenetan.
- **Lanbidea:** Piercing egilea.
- **Piercing egilea ez banintz...** gizarte langilea.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** neguan afaria prestatu eta sofan jartzea, udan hondartzan bainua hartzea.

Euskaldun izatearen kontzientzia

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA
@IMANOLAZKUE

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO
OSTOLAZA

Euskal Pizkundea

1876an, gerra karlista amaituta eta foruak galduta, Euskal Herriaren herri nortasunari (eta hizkuntzari) eusteko nolabaiteko kontzientzia esnatu zen, Euskal Pizkundea izeneko mugimendu soziokulturalarekin, eta 1936 arte iraun zuen. Mugimenduak bi bide jorratu zituen: batetik, intelektuala, euskal nortasunaren ezaugarriak ikertuz, berreskuratuz eta dibulgatuz; bestea, herri mailakoa, bereziki Lore Jokoak¹ eta antzekoak sustatuz. Ekintza ugari gauzatu zituzten, besteak beste, euskal jaiak antolatu, kultur aldizkariak argitaratu, elkarteak sortu, irakurzaletasuna bultzatu, euskal kazetaritza bultzatu, omenaldiak antolatu... Gainera, Pizkundea abertzaletasunerako ezinbesteko ongari eta euskarri ere izan zen. Pizkundearen garaian, euskarazko produkzio idatzia handitu egin zen, eta ikuspegi erlijiosoa gaindituta, gaiak ere zabaltzen ziren: giza eta gizarte gaiak, hezkuntzakoak, literatura... Elkarte eta eragile ugari ere

sortu ziren: Euskal-Esnalea, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Euskararen Adiskideak... Euskararen aldeko pentsamendua eta kontzientzia inoiz ez bezala egituratu eta antolatu zen.

Eta Zumaian?

Oro har, esan daiteke Pizkundek, hasieran, batez ere udalean eta herriko elite batengan baino ez zuela eragin, eta XX. mendeak ekarri zuen abertzaletasunaren gorakadarekin eta zabalkundearekin indartu eta zabaltzen zela gure herrian. Mugimendua hasi zenean eta XX. mendera arte, zumaia-erakundeak Euskal Pizkundetik aparte samar egon ziren, eta horren adibide Txomin Agirrek adierazitakoa *Kresala* nobela argitaratu zuenean (1906an), zenbaterainoko oihartzuna izan zuen lanak gure herrian:

BESTE UDALEKIN BATERA, ZUMAIAKOA ERE PIZKUNDEAREN BULTZATZAILE IZAN ZEN

"Yo no sé lo que se habrá vendido, ni quiero saberlo, por ahora; me da miedo preguntarlo. En Zumaya, por supuesto, nadie ha comprado un solo ejemplar y solamente se han leído los que he regalado yo"².

Beste udalekin batera, Zumaia-erakundeak ere Pizkundearen bultzatzaile izan zen, eta ia beti lagundu zion; batzuetan, gainera, oso inplikaturik. Gainera, erabaki horiek, normalean, aho batez hartzen zituen udalbatzak, baita agintean alderdi abertzaleak ez zeudenean ere; izan ere, tradizionalistek edo karlistek ere bat egin zuten Pizkundearekin. Nola bultzatzen zuen udalak, ordea? Adibide batzuk ekarriko ditugu hona.

Batetik, Pizkundeko aldizkariaren harpidetza egin eta kanpotik eskaintzen zizkieten liburuak erosi egiten zituen, eta zabaldu izanez gero, inguruetako beste udalei galdetzen zieten, haiek zer egin behar zuten; horrela, 1884an *Euskal-Erria* aldizkariaren harpidetza egin zuen; 1885ean, *Euskal-Nafarren-Joaera* edo *emigracioa* liburuaren hamabi



ale erosi zituen; 1912an, *Ametz-gozuak* eta *Endo* liburuen seina ale erosi zituen; 1922an, Txomin Agirre hil berriaren omenezko hiru testu zekartzalako, *Itzaldiak* liburuaren 25 ale erosi zituen; 1931n, *Urruzuno-ren ipuiak* lanaren hamabi ale eskuratu zituen, baita *Txomin Ar'lote* lanaren hogeia ale ere; 1931n, *Sabin Euskalduna* lanaren bi dozena erosi zituen:

"Fueron examinados los ejemplares del libro *Sabin Euskalduna* que por acuerdo anterior han sido adquiridos al objeto, y encontrándolos del agrado de la Corporación, acuerdan adquirir dos docenas con destino a su reparto entre los alumnos escolares. Asimismo, y para el mismo indicado objeto, acuerdan la adquisición de una docena de ejemplares del libro *Txomin Ikasle*"³.

Beste hau 1932koa da:

"Fue dada lectura a escrito de Don Fermín Iturrioz ofreciendo su obra euskérica 'Lutelesti edo georapia' a 4 pesetas el ejemplar, con descuentos progresivos según la cuantía de los ejemplares que se pidan. El Ayuntamiento, por unanimidad, acuerda pedirle dos ejemplares, con objeto de examinar dicha obra, sin perjuicio de que en su día se amplíe el pedido"⁴.

Bestetik, udalak parte hartzen zuen han-hemenka antolatzen ziren biltzarretan, babesle gisa ere bai (diru ekarpenarekin), eta horren adibide da 1918an Oñatin Eusko Ikaskuntzak egin zuen batzarra; han parte hartu zuen Luis Olaizola Zumaiako alkateak, tradizionalista izanagatik, eta hango berri eman zuen plenoan:

"Que en la sección de lenguas es donde los debates fueron más interesantes y en el cual se ha trabajado mucho y con provecho (...). Fruto de esta buena disposición es la creación de la tan deseada Academia, o como mejor se le denomine en su día **para velar por nuestra rica lengua euskara**: un sinfín de disposiciones más entre ellas la publicación en Euskera de las pastorales, circulares, oficios, etc. etc.; así como clases en los Seminarios, Colegios, tanto de 1ª como de 2ª Enseñanza, en una palabra, allí donde se pueda hacer algo provechoso **en bien de la lengua de nuestros antepasados**. Que en la sección de Enseñanza se propuso se recabe de los poderes públicos la **libertad de nombrar maestros de 1ª enseñanza; se haga una labor intensa a fin de dotar a las escuelas de todo el material en euskera** y si es preciso se hagan concursos que bien podían organizar las Diputaciones, pues que todo merece la Enseñanza; y por último **en los**

pueblos euskaldunes donde la mayoría es euskaldun sea obligatoria en esta lengua la enseñanza y allí donde la mayoría sea erdaldun no se le abandone a los que no lo son y que cuando menos se les dé una clase especial, no siendo nunca en horas de recreo (...). La corporación que oyó con sumo agrado estas manifestaciones, acordó un voto expresivo de gracias a favor de la expresada Junta Organizadora por la brillante organización y resultados prácticos que se han obtenido en el expresado concurso"⁵.

Halaber, 1930ean, Euskaltzaleak elkarteak batzarra egin zuen Zumaian, eta gure herrian hartu ziren elkarte berrantolatze eta sendotzeko zenbait erabaki.

Gainera, udalak laguntza edo babes ekonomikoa eman zien zenbait ekimeni, eta 1936ko adibide bat ekarriko dugu, horren erakusgarri:

"Es dada lectura de un escrito de la entidad cultural Euzko Pizkunde, domiciliada en San Sebastián, exponiendo que se propone tomar a su cargo la preparación de **emisiones euzkéricas por la emisora 'Unión Radio San Sebastián'** llenando así una necesidad sentida en gran parte del público radioyente y en cumplimiento de una función docente, cual es el de divulgar y

hacer familiar el idioma y arte vascos, y solicitando del Ayuntamiento una subvención anual, que coopere a la realización de proyectos tan importantes. El Sr. Alcalde Presidente, propuso que por este año se conceda a los expresados fines de 'Euzko Pizkunde' la subvención de cincuenta pesetas, cuya cantidad cede de la consignación que existe de los gastos de representación. Y el Ayuntamiento así lo acuerda, agradeciendo al Sr. Alcalde su interés y desprendimiento"⁶.

Azkenik, bereziki azpimarratuko ditugu 1900eko abuztuaren 22, 23, 24 eta 25ean Zumaian izan ziren Euskal Festak⁷, mugarri garrantzitsua izan zirelako herrirako. Izan ere, euskalduntasuna eta euskara agerian jartzeko programako ekitaldiez gain, balio izan zuen herri osoa lanean jartzeko festa horiek antolatzen, urtebete lehenagotik hasita: dantzari txikiak prestatu, musika bandaren tresnak konpondu eta entseguak egin, elizkizunak antolatu, etorri behar zutenek bazkaltzeko eta lo egiteko lekuak prestatu, lehiaketak antolatu, garraiobide bereziak (trena) jarri, festak iragartzeko esku programak eta kartelak atera eta banatu...

Euskal Pizkundeari esker, euskaldun izatearen kontzientzia zabaldu, indartu



eta sustraitu zen gurean, eta urte batzuk geroago, alderdi abertzaleen sorrera eragin zuen. ■■■■

¹ Lore joko: Floralia edo Lore Jokoeak, berez, Antzinako Erroman dute jatorria eta Flora jainkosari eskainitako jaiak ziren; gero, literatur

lehiaketa bihurtu ziren, hizkuntzak bultzatzeko. Euskal Herrian Anton Abadiak sortu zituen, 1853an, eta saritzat lorea, ontzako urrea eta makila ematen ziren.

² GARTZIA TRUJILLO, Sebastian: Domingo Agirre Gutun bilduma, Euskaltzaindia, Bilbo, 2008. 96. or.

³ Zumaiaiko Udai Artxiboa 2849 (136V), 1931-12-23.

⁴ ZUA 2850 (20V), 1932-06-10.

⁵ ZUA 2842 (184V), 1918-09-19.

⁶ ZUA 2852 (125), 1936-05-25.

⁷ Horren gaineko artikulua Baleiken 2021eko irailean (312. zk.): <https://baleike.eus/zumaia/1634807721182-euskal-festak-zumaian-1900-urtean>.

Lekuko isila

ARGAZKIA ETA TESTUA: DAVID DE LLODIO

Antzinako herrixka hartan, infinituraino luzatzen zela zirudien harrizko egitura dotore bat zegoen. Eraikuntza ikaragarria zen, ozeano zabal eta urdinerantz zihoana. Arkitekturaren mirari hura *itsasoko pasabide* bezala ezagutzen zuten herritarrek, eta denborak eta elementuek haren hormetan arrastoa utzi bazuten ere, egiturak bere jatorrizko distira mantentzen zuen. Denboraren erasoari aurre egiten zion, eraiki zen sendotasun berarekin.

Harrian emaniko urrats bakoitzak arrasto sakona utzi zuen ezagutu zutenen bizitzan. Eta mendeek aurrera egin bazuten ere, itsasoko pasabideak biziaren etengabeko jarioaren eta itsasoaren misterio amaigabeen lekuko isila izaten jarraitu zuen. ■■■





PUBLIZITATEA

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edo zertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



OREKA
KIROPRAKTIKA

Aita Mari, 17 behe - Zumaia
943-02 04 77
info@orekakiropraktika.com @oreka.kiropraktika

OSA
BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 - tel. 943-86 14 12 - 686 36 41 49



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. p. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 88 - Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com - e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaraia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Tapaia
taberna



Embera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 behe - Tel. 943 573 905



UKENDU
**PARABOTIKA
BELARDENDA**

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

yoana
ileapaindegia



Amaia plaza,
2 behe
943-14 32 78

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41

Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

**Zaintzaren
diagnostikoa
egiten ari gara.
Bete galdetegia!**



1. Bete galdetegia:

Eskaneatu QRa edo sartu
labur.eus/zumaiazaintza
webgunean

2. Zabaltu galdetegia!

**3. Zailtasunak dituztenei
galdetegia betetzeko
laguntza eskaini.**